

Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur

HERNÁNDEZ, Jone M.

UPV-EHUko Gizarte Antropologiako irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Jada, gutako asko ez gara gazteak, baina gazteak interesatzen zaizkigu edo kezkatzen gaituzte, eta horregatik ikertu nahi ditugu. Baina, zergatik? Zertarako? Eta nondik? Datozen orrietan, galdera hauek eta beste batzuk erantzuteko saiakera egingo dut. Dena hiru ardatz nagusien inguruan. Lehenengoan gazte izaera/izatearen inguruan arituko naiz, gazte kategoria edo nozioak daukan pisu soziokulturala nabarmentzeko. Bigarreanean gazteen aisialdiaz mintzatuko naiz, denbora libreak adin talde honetan duen protagonismoa aldarrikatzeko asmoz. Azkenik, gazteak eta hizkuntzaren (euskararen) arteko loturaz hitz egingo dut eta harreman konplexu honen parte diren hainbat elementutan jarriko dut bereziki arreta.

Hitz-gakoak: gazteak, aisialdia, euskara.

Hoy en día, entre quienes estudiamos la juventud muchas/os no somos ya jóvenes, pero nos interesan y nos preocupan, y es por ello que los investigamos. Pero ¿para qué? ¿Por qué? Y ¿desde dónde? En las siguientes páginas voy a tratar de responder a estas preguntas, todo ello en torno a tres ejes. Primero reflexionaré sobre lo que es ser joven, con la intención de subrayar el peso socio-cultural de esta categoría o noción. Posteriormente me centraré en el ocio juvenil, para reclamar el peso que tiene el tiempo libre en esta franja de edad. Para finalizar hablaré sobre la relación entre las y los jóvenes y el euskera.

Palabras clave: jóvenes, ocio, euskera.

Aujourd'hui beaucoup d'entre nous ne sommes pas jeunes, mais les jeunes nous intéressent et nous préoccupent, c'est pour cela que nous réalisons cette enquête. Mais dans quel but ? pourquoi ? et à partir de quoi ? Dans les pages qui vont suivre je vais essayer de répondre à ces questions en partant de trois axes. Je réfléchirai d'abord à ce qu'est être jeune, en soulignant le poids socio-culturel de cette catégorie ou notion. Puis je m'intéresserai aux loisirs des jeunes pour souligner l'importance des loisirs dans cette frange d'âge. Pour terminer je parlerai des relations entre les jeunes et de la relation qu'ils entretiennent avec le basque.

Mots-clés : jeunes, loisirs, basque.

Many of us are no longer young, but we are interested in young people or we are concerned about them, and that is why we want to do research on them. But why? What for? And on what basis? In the following pages I shall be endeavouring to answer these and other questions all around three main lines. In the first, I shall be dealing with the nature of the young person, to highlight the socio-cultural weight of the category or notion of the young person. In the second, I shall be dealing with the leisure time of young people, to draw attention to the prominence of leisure time in this age group. In the last one, I shall be dealing with the bond between young people and (the Basque) language, and I shall be focusing in particular on various elements that are a part of this complex relationship.

Keywords: young people, leisure time, Basque.

Elyem Chej Legutioko 13 urteko neskatilak,
guraso etorkinei egindako bertsoak:

*«Bertso koadrila beti izan da/ nire lagunik onena/
Oihane ere izan baituzu/ Gu aguantatzeko kemena/
Familia ere hona etorri da/ Nahiz eta ez ulertu dena/
Bihotz-bihotzez zuentzako da/ Musurik handiena».*

Testu hau prestatzen hastean konturatu naiz jada hamar urte baino gehiago pasa direla gazteriar buruz egindako lehenengo ikerketa argitaratu nuenetik (Martínez de Luna, 1999). Garai hartan ia hogeita hamar urte nituen, eta ez dakit «gazte» kategorian sartu ninteken, baina orain baino gertuago neukan gaztaroa, orain baino hurbilagoa sentitzen nituen gazteak. Horietako batzuk elkarrizketatu nituen ikerketa hori burutzen ari nintzela eta gogoan dudanaren arabera orduan ez nituen sumatu gaur bezain urrun. Egun, unibertsitateko irakaslea naizenetik, egunero, gelan sartzen naizenean belaunaldien arteko distantzia sentitzen dut, batzuetan amildegia izatera iristen dena. Dudarik gabe bizitzako beste etapa batean nago; artikulua honen irakurle gehienentzako antzera –pentsatzen dut–. Hori esaten digute egunero gure gazteek, nahiz eta merkatuak –eta zehazkiago eredu kontsumistak– beste diskurtso bat sinestarazi nahi izan.

Jada, gutako asko ez gara gazteak, baina gazteak interesatzen zaizkigu edo kezkatzen gaituzte, eta horregatik ikertu nahi ditugu. Baina, zergatik? Zertarako? Eta nondik? Datozen orrietan, galdera hauek eta beste batzuk erantzuteko saiakera egingo dut. Dena hiru ardatz nagusiren inguruan. Lehenengoan gazte izaera/izatearen inguruan arituko naiz, gazte kategorია edo nozioak daukan pisu soziokulturala nabarmentzeko. Bigarrenean gazteen aisialdiaz mintzatuko naiz, denbora libreak adin talde honetan duen protagonismoa aldarrikatzeko asmoz. Azkenik, gazteak eta hizkuntzaren (euskararen) arteko loturaz hitz egingo dut eta harreman konplexu honen parte diren hainbat elementutan jarriko dut bereziki arreta.

Ondoren, hiru aspektu horien azterketari ekingo diot.

1. Gaztea naiz eta...

Puntu hau garatzeko orduan ezinbestekoa jotzen dut Carles Feixa antropologo katalanak burututako lana. Feixa da, dudarik gabe Estatu mailan gazteriaren inguruan aditu nagusienetarikoa bat, eta bere testuak biziki gomendatuko nizkioke gazteriarekin arduratuta dagoen edozeini. Egile honen lehendabiziko kezka gazteria bera definitzea izan da. Horrela eta tradizio antropologikoari so eginez, argi eta garbi uzten du bere lanetan gazteria eta horiei loturiko hainbat kontzeptu (besteak beste nerabezeroarena) «asmakizun» bat direla, gizarte eraikuntzak alegia, testuinguru sozial eta historiko batean sortutakoak. Zentzu honetan egileak gaztaroa eta, zehazki, nerabezeroa, industrializazioaren hastapenetan, hau da XVIII. mendearen erdialdean– sortutakoa dela dio (Feixa, 2006) nahiz eta 1900. urte ingurura arte ez den zabaltzen hasiko. Orduan belaunaldi berri batek kontzientzia hartzen du berezko kultura bat osatzen ari dela, helduen kulturarekiko ezberdina dena. Horren ildotik, gaztaroa demokratizatzen (hedatzen) hasten da gizarte erakunde nagusien aldaketekin batera (Feixa, 2006:3)

«(...) diversas reformas en la escuela, el mercado de trabajo, la familia, el servicio militar, las asociaciones juveniles y el mundo de ocio, permitieron que surgiera una nueva generación consciente de crear una cultura propia y distintiva, diferente a la de los adultos».

Beraz, besterik baino lehen azpimarratu behar da, gazteria kontzeptua sortutako gizarte kategoria dela. Ahaztu egin zaigu, baina gutako askok sarritan entzun izan ditugu gure guraso edo aiton-amonen istorioak. Horietan behin eta berriz azpimarratzen zuten euren gaztaroaren (eta askotan haurtzaroarena ere) iraupen laburra. Eskolatik lantokira (askok eskola garaia bukatu gabe) eta urte gutxitan familiako ardurekin. Dena goizegi (gazteegi) eta jarraian egiten zuten, eta gaztaroaren printza batzuk baino ez zituzten ezagutu, ezagutu zituztenak. Baina XX. mendea joan ahala gauzak aldatuz joango ziren mendebaldeko gizarteetan, testuinguru ekonomiko, politiko nahiz kulturalen eraldaketarekin batera. Guzti horren fruitua dira azken hamarkadetako gazte belaunaldiak. Halere, ezin dugu ahaztu beste gizarte batzuetan gauzak beste modu batean gertatu izan direla (eta gertatzen direla) eta ezberdintasun hauek, hain zuzen ere, nabarmendu dituzte maiz antropologoek.

Idea hauek xingle eta jakinak dirudite, baina inpresioa dut sarritan ez ditugula kontuan hartzen eta behin baino gehiagotan joera dugu gazteria kategoria atemporal eta unibertsal bezala ulertzeko. Uste oker honen kontra doa, hain zuzen ere, Feixak gazteriaren inguruan proposatzen dituen hiru diskurtso, narrazio, imajinario edo ereduaz azterketa. Hiru eredu horien oinarrian uste bat dago: gazteriaren nozioa aldakorra da eta praktikan helduen mundura suposatzen duen pasabide edo trantsizio hori aldiro-aldiro birplanteatzen ari da. Gaztaroa, haurtzaroa eta helduaroaren arteko garaia litzateke baina, nola definitzen da garai historiko bakoitzean igarobide fase hori? Nola definitzen du gizarte bakoitzak gazteria, gazte izatea? Nola interpretatzen dute gaztetxoek beraiek euren bizitzako etapa hori? Zeren arabera definitzen dute euren burua gazte bezala?

Egungo gazteriaren inguruan mintzatzeko lagungarriak direlakoan, ondoren, labor azalduko ditut Feixak aipatutako hiru narrazio edo eredu (Feixa, 2005a; Feixa, 2009); XVIII-XXI. mendetan zehar garatutakoak.

Lehenengo eredua «Tarzan-en sindromearekin» identifikatu izan du antropologo katalanak. Eredu hau Jean-Jacques Rousseauk asmatu zuen XVIII. mendearen bukaeran baina astiro garatu zen eta esan daiteke XX. mendearen erdialdera arte mantendu zela indarrean. Eredu honen oinarrian uste sendo bat dago: nerabea, gaztetxoa zibilizatu beharreko gizakia litzateke, basati ona, pertsona garbia, purua. Bere baitan potentzialtasun ugari biltzen ditu, baina garatu gabe daude. Horretarako zaintza eta gizarteratze praktika egokiak jarri behar dira martxan. Baina horren aurrean zalantzak sortzen dira: noiz arte mantendu behar da nerabea bere munduan? Noiz integratu behar da helduen gizartean? Tarzanek bezala, gazte mota honek miresmena eta beldurra sentitzen ditu –batera– helduen gizartearen aurrean. Halere, eredu honetan trantsizioak oso azkar ematen ziren: jolasetik lan mundura; lan mundutik familiaren osaketara (behin soldaduska eginda, noski). Feixak aipatzen duenez (Feixa, 2005a:4) neurri handi batean eredu honek ahozkotasunean oinarritutako kultura batetik idazketan oinarritutako kultura batera ematen den jauzia islatzen du.

Bigarren eredua «Peter Pan-en sindromearekin» lotzen du Feixak eta garaiko gazteriaren erretratua litzateke. Bigarren Mundu Gerra gertatu on-

doren sortu zen eta 50. hamarkadatik aurrera hasi zen zabaltzen, kapitalismoak eta kontsumo gizartearen garapenak lagunduta. Eredu honetan –dio Feixak– nerabeak subjektu iraultzaile berriak dira. Kontsumismoaren protagonista bilakatzen dira nerabeak, helduen mundua eta gizarte egituraren kontra eginez. Testuinguru berri honetan gazte izatea da helburua (*Forever Young*). Hori dela eta, heldu arorako trantsizioa moteldu egiten da eta hainbat ohiko igarobide desagertzen hasten dira, adibidez, soldaduska (Feixa, 2005a:5):

«(...) el proceso acelerado de escolarización, la creación de microsociedades adolescentes –así en la educación como en el ocio–, el aumento de la capacidad adquisitiva de los jóvenes, la desaparición de los rituales de paso hacia la edad adulta, la emergencia de «tribus» y subculturas juveniles, serían los rasgos característicos de un modelo de inserción «mecánica» en la sociedad».

Feixak musika munduan sortutako hainbat talde famaturekin lotzen du eredu hau, besteak beste *The Who* edo *Beatles* taldeekin. Antropologo katalanak (Feixa, 2009) dioen arabera, gazteriaren inguruan narrazio edo errelato berri bat sortzen da, kasu honetan idatzizko kultura batetik ikusmeneko kultura baterako bidea irudikatzen duena, Guttenbergen galaxiatik, McLuhanen galaxiara doana, alegia.

Hirugarren eredu postmodernitatean kokatzen du Feixak eta «Blade Runner-en sindrome» bezala izendatu du aipatu antropologoak (Feixa, 2005a:5). Bere sorrera XX. mendearen bukaeran kokatu daiteke baina etorkizunera begiratzen du, horregatik XXI. mendean zehar guztiz zabalduko dela uste du Feixak (Feixa, 2005a:5). Eredu honen funtsean gizarte-sarearen ideologo eta bultzatzaileak –ofizialak zein alternatiboak, hau da, *hackerrak*– aurkitu daitezke. Ikuspegi berri honetatik, lana eta aisialdiaren arteko fusioa aldarrikatzen da, eta adimen artifiziala eta gizarte esperimentazioaren arteko lotura gorai patzen da. Testuinguru honetan nerabeak izaki artifizialak –erdi robotak, erdi gizakiak– izango lirатеke. Beti kinkan: alde batetik, helduei errespetua zor; bestetik, helduen mundutik aldendu nahia. Feixak azaltzen duenez, kontzientzia eta memoriarik gabeko gazteak direnez ez dira guztiz aske euren etorkizuna eraikitzeko. Baina, bestalde, teknologi berrien potentzialtasun guztiak erabiltzeko hazi eta heziak izan diren neurrian,

hobeto prestatuta daude aldaketak onartzeko eta egoera berrietara egokitzeko. Ez dituzte helduek dituzten aurreiritziak, baina beren iraultzak porrota egingo du (Feixa, 2009):

«(...) sólo pueden protagonizar revueltas episódicas y estériles, esperando adquirir algún día la «conciencia» que los hará adultos. Como los replicantes, tienen todo el mundo a su alcance, pero no son amos de sus destinos. Y como blade runners, los adultos sienten hacia ellos una mezcla de fascinación y de miedo».

Eredu hibrido eta zalantzakoa da guzti honen emaitza: alde batetik, gizartearen *infantilizazioa* ematen da; bestetik, teknologi berrien hedapenaren ondorioz adimen aldakorra (edo malgua) nagusitzen da. Horiekin batera beste faktore askok laguntzen dute eredu berri hau definitzen: lan munduan sartzeko edota gurasoengandik aldentzeko erresistentziak edota zailtasunak, nerabeen arteko mundu mailako sareen sendotzea, Interneteko komunitate birtualen agerpena, eta abar. Guzti hauek «Blade Runner»-en ereduaren ezaugarriak lirateke, gizarteratzeko eredu birtual batena, alegia. Hemendik narrazio berezi bat egituratuko da, ikusmenezko kultura batetik hipertestura pasatzerakoan sortzen dena, alegia. Beste hitzetan esanda, McLuhan-en galaxiatik Gates-en galaxiara igarotzeko narrazioa edo diskurtsoa.

Hiru eredu hauek, azpimarratzen du Feixak, ez dira inolaz ere bazter-tzaileak, izan ere eredu bakoitzetik sortutako aldaerak bizirik iraun dezakete egun. Baina ondorio bezala Feixak zera azpimarratzen du, gazteriak ez du esnatu nahi, ametsetan jarraitu nahi du (Feixa, 2009):

«(...) la juventud ha dejado de ser un rito de paso para convertirse en una ritualización del impasse».

Eta Euskal Herriko gazteak? Aplikagarria al da Feixak proposatzen duen azterketa gure errealitatera? Baliagarria da gure gazteak irudikatzen? Ñabardurak alde batera utzita, baietz uste dut. Hirugarren ereduan argi agertzen den bezala egun teknologi berriek izugarritzko pisua dute gazteriaren definizioan. Errealitate honekin batera, globalizazioa eta transmigratioari loturiko fenomenoak gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dira gure gizarteetan. Joera berri hauetan giltzarri nagusi bat agertzen da: fluxuena. Egundik fluxuek, sareak, mugak ordezkatu dituzte, edo hobe esanda fluxuek

mugak eztabaidagai bihurtu dituzte. Eta eztabaida horretan aurkitzen dira, hain zuzen ere, gure gazteak. Gazte bezala mundu mailako gazte komunitateen partaide sentitzen dira; euskaldun bezala kultura zehatz batean errotuta ikusten dute euren burua. Merkatuak eta maila globalean ematen ari diren gertakariak (komunikazioa, globalizazioa, transmigratioa) bultzatako prozesuen parte direla diote, baina aldi berean tokian tokiko errealitatearen partaideak kontsideratzen dira. Gainera, ezin dugu ahaztu gazte hauek, gure gazteak, hazi egin direla eta heziak izan direla testuinguru kultural batean zeinetan mugak (zentzu zabal eta anitzean) pisu sinboliko eta erreal nabarmena izan duten (eta dute) (del Valle, 1988).

Laburbilduz, nazioarte mailan ematen ari diren prozesu hauek eszenatoki berri baten aurrean kokatzen gaituztela azpimarratu nahiko nuke: lehenengo aldiz eztabaidak Estatuaren dimentsioa gainditu beharko du, mundu mailako kezka eta arazoei aurre egiteko. Identitate tradizionalak ezarritako mugak merkatuak sortutakoengatik gainditzen edo ordezkutzen ari direla uste dut. Neurri batean internetek bultzatako sare sozialen fenomenoak hori erakusten digu: mugaz gaindiko errealitate baten antolaketa prozesua, logika eta interes berriak dituen. Praktikan, Espainiako nahiz Frantziako mugak bigarren maila batean gera daitezke. Horrela, identitateak osatzeko garaian espazioak (distantziak, gertutasunak) tradizionalki izan duen garrantzia birformulatu behar da, besteak beste egun espazioa birtuala ere izan daitekeelako. Baina nola gainditu mugak gure kulturaren duen garrantzi sinbolikoa? Nola alboratu gure identitaterako hain funtsezkoak izan diren limiteak?

Eztabaida horretan ikusten ditut nik gazteak egun. Zalantzas beteta. Tentsioan: nola definitu mugarik gabeko euskalduna? Posiblea al da, edo beharrezkoa da mugarik gabeko euskaldun identitatea?

Galdera, zalantza eta tentsio honek erronka berrien aurrean jartzen gaitu. Marcyelina Morganek dionez (Morgan, 2004) komunikazioak, globalizazioak edo transmigratioak elebakartasuna utopia bilakatzen dute. Horren adibide argiena, gainera, gaztetxoek mundutik etor daiteke. Izan ere, nahiz eta hizkuntza bera ez izan, egun, munduko punta ezberdinetan bizi diren gazteak hizkuntz komunitate bat osatu dezakete, hitz egiteko modua, hizkuntzari loturiko sormena, berrikuntza gramatikalak partekatzen baiti-

tuzte. Horren adibidea Morganen artikuluan topatzen dugu, bertan egileak Paris eta New Yorken bizi diren bi *hip-hoperoen* arteko loturak aztertzen ditu eta gazte hauek hizkuntza ezberdinak hitz egin arren, hizkuntz komunitate bereko kideak kontsideratu daitezkeela aldarrikatzen du. Zergatik? Bere hitzetan (Morgan, 2004:6):

«In the case of these hip hop artists, the speech community is not linguistically and physically located but is bound by politics, culture, social condition, and norms, values, and attitudes about language use».

Puntu honetan nabarmendu nahi dut Morganen planteamenduak hizkuntz komunitatearen nozioa eztabaidagai bihurtzen duela eta, argi eta garbi, interpretazio eta kontzeptu berrien beharra aldarrikatzen duela. Baina momentuz ez naiz sartuko zeregin honetan. Aldiz, adibide interesgarri bat jarri nahi dut mahai gainean, ikusteko nola jada orain dela 20 urte hainbat gazte saiatu ziren fluxu mugen arteko tirabira eta tentsio honetatik alde egiten, XXI. mendeko euskal gazteriarentzat identitate eredu bat zirriborratuz. Horrela, *Negu Gorriak* musika taldea osatu zuten gazte horien aldarrikapenak nabarmendu nahiko nituzke. *Negu Gorriak* musika taldea 1989an jaio zen eta urtebete beranduago bere lehenengo diskoa atera zuten: «Esan Ozenki». Bi taldekide –Fermin eta Iñigo Muguruza anaiak– *Kortatu*–n ere taldekideak izan ziren aurretik. Proiektu hura desagerrarazi eta beste musikari batzuekin batera etapa berri bati hasiera ematea erabakitzen dute. Musikari hauek aurretik «Euskal Rock Erradikala» deitutako fenomenoarekin lotura estua izan bazuten ere, *Negu Gorriak* taldea martxan jartzerakoan erreferentzi berriak bereganatu zituzten: horrela, punk-a eta thrash rock gogorarekin lotura mantentzen badute ere, rap-aren mundura hurbiltzen hasi ziren eta bere eragina nabarmena izan zen, bai musikan, bai estetikan, eta batez ere diskurtsoan. *Public Enemy* ezinbesteko erreferentzia bilakatzen da eurentzat. Horrela azaltzen du Fermin Muguruzak (Urla, 2001:2):

«Nos impresionó Public Enemy, la fuerza que tenía el movimiento rap, y su poder crítico, así como nos había impresionado el movimiento punk de los 77».

Baina oraindik aldaketa nabarmenago bat azpimarratu behar da: hizkuntzarena. Teoriatik praktikara egin zuten jauzia *Negu Gorriak* taldekoek:

euskaraz bakarrik abestea erabaki zuten (ordu arteko hizkuntz praktikak apurtuz). Jacqueline Urlaren ustez (Urla, 2001:2) horren eragina handia izan zen. Muguruza anaien ibilbide artistiko eta musikala gazteleraz egina zen ordura arte¹. Euskara galdua zegoen bere familian, baina ikasteko erabakia hartu zuten eta «euskaldunberriak» bihurtu ziren. Baina hizkuntza ikasteaz eta erabiltzeaz gain, hizkuntzaren inguruko hainbat lelo (geroago famatuak izango zirenak) utzi dizkigute, besteak beste ondorengoa: *Euskalduna naiz eta harro nago*. Urlak azaltzen duen moduan (Urla, 2001:2):

Aquí se da la versión euskaldunizada de la famosa proclamación de orgullo negro hecho por James Brown –Say it loud, I’m black and I’m proud–.

Keinu xumea izan daiteke, baina nire ustez garrantzi sinboliko handia du: lehenengo aldiz euskal gazteriarri loturiko diskurtso erradikalak (gehienbat abertzalea), mugak apurtzen ditu eta ohiko dikotomieie –punk/gizartea eta basko/espainiara– beste batzuek gehitzen zaizkie –esate baterako txuria/ez txuria–. Nazioarteko elkartasuna bultzatu nahi du eta geroztik ohikoak izango dira *Negu Gorriak* taldeak beren lanetan beste herri edo kolektibo gutxituei buruzko erreferentziak txertatzea. Nabarduretan sartu gabe, iruditzen zait *Negu Gorriak*-en kasua adibide interesgarri bat izan daiteke aurretik aipatutako joera irudikatzeke: espazioa eta denboraren «desagerpena». Horrek imaginario berri bat sortzeko aukera ematen du: euskara erdigunean, baina hiztuna eta bere errealitatea/egoera (soziala, kulturala, sexuala, etabar.) nabarmenduz (Urla, 2001:7):

«En la letra de sus canciones, y en sus actuaciones y práctica, demuestran que el ser vasco no requiere aislarse de un mundo más amplio de gustos y preocupaciones sociales. No requiere renunciar a la chupa por la boina, ni cambiar los compactos de Fishbone por los de Benito Lertxundi. Pero sí implica que hay que hablar euskara, o por lo menos aprenderlo, y también tratar de entender la conexión y similitudes entre la opresión económica, cultural, lingüística, racial y sexual. (...) En fin, la producción musical de estos jóvenes visto en su conjunto no disminuye su identidad como patriotas o como auténticos vascos, pero sí cambia lo que ser patriota o auténtico puede significar y los símbolos a través de los cuales se reconoce».

¹ Zehatzagoak izateko, Kortaturen laugarren diskoa euskara hutsean egin zuten.

2. Gu, gure aisialdia

Kontxi Berrio-Otxoa, Zesar Martinez eta hirurok (2003) gatzetxoan aisialdiari buruzko ikerketa burutu genuen 2001 eta 2002 urteetan. Ikerlanaren eginbehar garrantzitsuenetariko bat, gazteentzat aisialdia zer den definitzea izan zen. Zaila suertatu arren, ikerlanaren txostenari begira, horrelako definizioa osatu genuen (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:7):

«Ez bairik gabe, gure gizartean denbora librea garrantzi handiko denbora da gazteentzat. Izan ere, ikasketekin edo bestelako betebeharrekin okupatuta ez dagoen denbora izanik, aukera ematen die gazte-garaian oso premiazkoa den beharrian bati erantzuteko: norberaren subjektibitatea garatzea eta modu librean adieraztea. Horrela, eskoletatik eta gainontzeko eginbeharretatik kanpo gelditzen zaien denbora librea bezala definituta aisialdia, aisialdiko denbora horretan bere harremanak, zaletasunak eta bete nahiak lantzeko aukera dute. Seguru asko, aisialdi momentu horiek euren barneko nahi, balio eta desioak adierazteko aukera bezala ikusten dituzte; aukera gauzatua edo frustratua izango dena, inguruan topatzen edo sortzen dituzten harreman, jarduera eta eskaintzen arabera».

Gure ikuspegitik gazteen aisialdia aztertzeko, ulertzeko eta azaltzeko hiru eremu landu behar genituen: harremanak, jarduerak eta espazioak. Aisialdia hiru elementu horietaz osatuta ikusten genuen, eta bakoitzean gazteen bizitzan eta bereziki euren denbora librean parte hartzen duten agente guztiak biltzen ziren. Aipatutako hiru lan ildoak ikertzerakoan aisialdiari loturiko hiru galdera erantzuten saiatu ginen: aisialdia bai, baina Norekin? Zertan? Non?

Egia esan eremu bakoitzaren azterketak informazio aberatsa eta interresgarria eskaini zigen, baina hiru horien artean espazioaren azterketa biziki emankorra suertatu zen, gazteei aisialdiaren inguruko hainbat elementu, bizipen nahiz diskurtso espazioan kokatzea bereziki lagungarria gertatzen zitzaien eta. Zailtasunak zailtasun adierazteko besterik ez zutenean, gutxienez beti agertzen ziren prest euren ohiko aisialdirako gunei buruz hitz egiteko. Diskurtso mota honi helduz lau aisialdirako

gune ezberdin finkatu genituen (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:27):

- Gune konpartituak:
 - Etxea eta familia
 - Ikastetxeko eskolaz kanpoko jarduerak
 - Kirol eta kultur azpiegiturak: kiroldegia eta liburutegiak
- Gune monitorizatuak:
 - Kirol eta kultur taldeak
 - Aisialdiko taldeak
 - Gaztelekuak
 - Gazteentzako egitasmo bereziak (Gaukoak, Gau On, eta abar)
- Gune birziklatutak:
 - Kalea, plaza, parkea
 - Aterpeak, aparteko zokoak, atariak, etxepeak
- Berezko guneak:
 - Taberna zonaldeak
 - Diskotekak
 - Lonja/txokoak/txabola
 - Gaztetxeak

Gune hauen azterketa sakona egin genuen. Momentu honetan ez dut beharrezkoa ikusten horretara bueltatzea. Halere, badira elementu pare bat berreskuratu nahi ditudanak azterketa horretatik. Alde batetik, nabarmendu nahiko nuke berezko guneak deituriko kategoriak gazteen aisialdian duen papera. Bestalde, azpimarratu nahiko nuke gune edo toki horiek (berezko guneak) gazteen identitate osaketan duten garrantzia. Gazte izatea, gazte identitatea espazioan gauzatzen dela esan dezakegu, baina ez edozein espaziotan, aisialdia zer den azaltzeko erabiltzen dituzten esparru horietan baizik. Horrela azaltzen genuen ideia hau amaierako txostenean (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:57):

«Gaztetxoek proposaturiko aisialdiaren definiziora hurbiltzeko garaian berezko guneak kategorian parte hartzen duten espazio ezberdinek (taberna zonaldeak, diskotekak, lonjak eta gaztetxeak) ezin hobeto islatzen dituzte definizio horri atxikitzen dizkioten ezaugarriak. Ezaugarri horiek aisialdia bete-betean bizitzeko eta gozatzeko aukerarekin parekatzen dituzte nerabeek eta, era batean edo bestean, leku horietan biltzen diren elementuak lirateke. Ikuspuntu horretatik, berezko guneak bezala izendatu dugun kategoria horren baitan agertzen diren aisialdirako tokiek datozen ezaugarriekin bat egiten dutela antzeman dugu».

Azalpen honen ondoren aipatutako ezaugarriak zehaztu genituen. Nik momentu honetan zerrendatu baino ez ditut egingo. Sakonean zegoen galdera hau zen: zergatik dira hain garrantzitsuak gune hauek gaztetxoek ikuspegitik?

- Gaztetxoek aisialdi intentsiborako aukeratutako edota sortutako berezko eremuak direlako. Hau da, helduen mundutik aparte bereganatutako espazioak eta denborak direlako.
- Gaztetxoek neurritik egindako mundua osatzen dutelako. Berezko jarduerak eta adierazpenak bultzatzen dituzten guneak direlako.
- Gaztetxoek esperientzia kolektiboa garatzeko aukera eskaintzen dutelako.
- Gazte kultura ezberdinen adierazpenerako guneak direlako. Askatasunezko, ihes egiteko eta gozamenezko sentsazioari lotutako espazioak direlako; erabaki gaitasuna eta protagonismoa sentitzekoak direlako.


Gune hauetan besteetan ez bezala nolabaiteko sinbiosia sumatzen zen, bertan gazte izan (identitatea) eta aisialdia bat egiten zutelako. Honek ondorio interesgarri batera eramaten gaitu: aisialdia ezinbesteko elementua litzateke gazte identitatea (gazte izatea zer den) ulertzeko, edo beste hitzetan, gazteek, neurri handi batean, aisialdiaren bitartez eraikitzen dute euren bizimodua, izaera, diskurtso... euren gazte izateko era. Eta aisialdirako gune ezberdinak identitate eraketarako eszenatoki bilakatzen dira.

Ildo honetatik galdera interesgarri bat sortzen da: zein espazio mota dira egun protagonista gazteen munduan? Guk egindako ikerketa eta beste egile batzuen ekarpenak kontuan harturik hipotesi bat azaltzera ausartuko nintzateke: egungo gazteek jarduera publikoen pribatizazioaren alde egin dute.

Ondoren, hipotesi honen azalpenean eta detektatutako joera horrek hizkuntz eremuan eduki ditzakeen ondorioetan erreparatuko dut laburki.

Orain dela ia hamar urte, Gipuzkoako Foru Aldundiak haur eta nerabeen aisialdiari buruzko ikerketa bat enkargatu zigun Kontxi Berrio-Otxoa, Zesar Martinez eta hiruroi. Horren emaitzak 2000. urtean argitaratu ziren (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2000) eta bertan, besteak beste, gaztetxoan denbora librearen garapenari buruzko atal bat irakur daiteke. Ibilbide historiko hori 70. hamarkadan hasten da. Garai horretan jaiotze ginek bat egiten dugu bertan agertzen den diagnostikoarekin: momentu horretan, aisialdia, kale jokoak eta denbora-pasak sinonimoak ziren. Kalea zen nagusi haur eta nerabeen denbora librean, bertan gauzatzen zirelako euren eskola ordur kanpoko jarduerak. Horretaz aparte, elizari loturiko talde gutxi batzuk zeuden eta horiekin batera hainbat ekimen kultural nahiz kirolaren ingurukoak. Baina kopuru oso txikiaz ari gara.

Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan: bilakaera historikoaren zertzelada nagusiak.



Iturria: Berrio-Otxoa et al., 2000: 17.

Denbora joan ahala eta grafiakoan ikus daitekeen moduan haur eta gaztetxoek bizitzako esparru hori dezente korapilatzen da eta 90. hamarkadan erreparatzen badugu konturatuko gara aisialdian parte hartzen zuten agente kopurua nabarmen handitu zela. Aipatu agenteak taulan sartu ezinik badabilta, haur eta gaztetxoek egutegietan berdina gertatzen da. Helduen antzera gaztetxoek agenda bete dute egun eta zentzu horretan bi adin talde hauen bizimodua mimitizatzen ari direla esan daiteke. Kaleak tarte oso txikia du haur eta nerabeen aisialdian (kalea eskola orduz kanpoko jarduera bezala, hau da jolas librea, denbora-pasa desegituratu bezala), eta berarekin batera beste protagonista batzuk aurki daitezke: betiko aisialdi kolektiboak (adibidez scouts taldeak), aisialdi talde berriak (garai hartan jaio berriak ziren hainbat talde, esate baterako euskara taldeei lotutakoak), ikastetxeak eta erakunde publikoak, enpresa pribatuak (nagusiki eredu kontsumista bati lotuta) eta bestelako ekimenak (adibidez kirola).

Ikerlanean aldaketa prozesu honi loturiko hainbat ondorio interesgarri nabarmendu genituen. Horien artean hiru aipatuko ditut momentu honetan labur-labur (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2000: 26-27).

- Egun, aisialdia antolatu beharreko denbora bihurtu da. Orokorrean denboraren bizipenean eta erabilpenean eman diren aldaketen eraginez, eguneko orduak ordutegi eta programazio finko baten menpe kokatzeko joera nagusitu da.
- Aurreko ideari lotuta, aisialdia egin beharrik gabeko denbora izatetik, okupatu edota bete beharreko denbora izatera pasa da. Egun, jendea libre gelditzen den denbora horren beldur ote denaren susmoa areagotzen da, izan ere, gizarteak aisialdia betetzeko eta okupatzeko demaseko grina erakusten baitu. Batzuen ustez, jendeak denbora librea egin beharreko jarduerarik gabe ikusten badu ondasun preziatu bat galtzen ari dela uste du, eta ondorioz, denbora librea aprobetxatu beharreko denboratzat jotzen du.
- Azkenik, eta aurreko ideiek agerian utzi duten bezala, egun aisialdia ekintzarako denbora bihurtu dela azpimarratu beharko litzateke. Egun aukeran dauden ekintzak asko dira, baina funtsean berdin dio zein den azkenean aukeratzen den aisialdirako eskaintza, garrantzitsuena aisialdi hori antolatzea da, okupatzea.

Ikerlana amaitu zenetik hamarkada bat pasa da eta jada momentua litzateke baloratzeko orduan egindako diagnostikoa baliogarria den egungo errealitatea ulertzeko. Nik uste, oraindik ere, argazki hori baliogarria dela ildo nagusiak zirriborratzen dituelako. Garai hartan somatutako joerak (haur eta gazte aisialdiari dagozkionak) egun indarrean diraute. Baina gaurko egoerak hainbat ñabardura egitera behartzen gaitu.

Hasteko esan behar da, egungo gazteek inoiz baino argiagoa dutela, zer den aisialdia eta zer ez, non kokatzen dute muga? Ikastetxetik aterata hasten da euren aisialdia, baina argi bereiztu behar da astean zehar duten aisialdia eta asteburukoa (Emakunde, 2009). Lehenengo kasuan, denbora libre baldintzatua da, bai zuzenean eskolako betebeharrengatik, bai bestelako jarduerengatik (eskolaz kanpoko jarduera arautuak, nolabait esateko). Asteburuetan aldiz, betebeharrekin hautsi egiten da eta benetan hasten da eurentzako denbora. Nik esango nuke, bereizketa hau gero eta argiagoa agertzen dela gazteen bizitzan. Zentzu horretan, asteburuak eurentzako denbora eta espazio «sakratu» edo erritualizatu bezala agertzen dira. Konturatzen bagara, lehen berezko gune bezala aurkeztu ditudan espazioak, nagusiki asteburuetako espazioak dira. Gainera, aipatu behar da, gizarte aldaketa orokorrak eraginda (belaunaldien arteko hausturak, adibidez), merkatuak bultzatuta (gazteentzako bakarrik sortutako aisialdirako guneak, esate baterako), edo bestelako arrazoiak tartean, gazteak denbora libre euren kabuz bizitzeko joera nagusitu dela. Denbora libre hau asteburuetan kontzentratzen da eta bereziki gauean. Hor gizarte paralelo moduko bat sortzen da eta gazteak aske sentitzen dira euren grinak, desioak, kezkek, eta abarrak adierazteko. Euren identitatearen iturburua bilakatu da aisialdia, euren eskola da aisialdia, euren berezko aisialdia.

Baina, joera honetatik abiatuta, beste bi aspektu nabarmendu nahiko nituzke. Aipatu den bezala, azken urteetan gazteek euren denbora librearen definizio propioa osatuz joan dira (hainbat kasutan merkatuak lagunduta). Definizio horietan denbora eta espazioaren bereganatzea funtsezkoa izan da. Asteburua, gaua, gazteena da, eta hori bizitzeko berezko espazioak sortu dira. Batzuetan espazio publikoak dira gazteek okupatzen dituztenak eta zentzu horretan tradizioari eusten diote (plazak edo parkeak, adibidez, beti izan dira aisialdi eta harremanetarako guneak), nahiz eta bere ekintzen bi-

dez gazteek okupazio horretan hainbat aldaketa sartu. Baina beste kasu batzuetan gazteek eurentzako propio sortutako espazioak aldarrikatzen dituzte. Aldarrikapen horri erantzuteko eredu ezberdinak sortu dira: batzuk merkatuaren eskutik (diskotekak esate baterako), baina beste batzuk gazteek beraiek bultzatuak dira. Hor, adibide ezberdinen artean, bi eredu interesgarri agertzen dira: gaztetxeena eta lonjarena. Gaztetxearena ezinbesteko eredia iruditzen zait Euskal Herriko gazteria aztertzeke garaietan, baina momentu honetan lonjen fenomenoan jarri nahiko nuke arreta. Zergatik? Aipatu den moduan, lehenago kalea bazen denbora librerako gune nagusia, egun etxea edota bestelako esparru pribatuak ari dira protagonismoa irabazten. Ikuspuntu horretatik esan daiteke denbora librearen pribatizazio bat gertatzen ari dela. Eta lonjak fenomeno honen muturreko adibide direla uste dut.

2001-2002. urte artean gaztetxoak eta aisialdiari buruzko azterketa burutu genuenean horrela definitu genituen lonjak (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:66):

«(...) lonjak erabilpen pribatua ahalbideratzeko asmoz gaztetxoek sortutako tokiak dira. Beraien ekimenari eta ahaleginari esker sortutako lekuak dira. Gehienetan etxe azpiko lokalak bihurtzen dira lonja, gazte talde batek jabeari alokatu eta txukundu ondoren. (...) Txikiagoak edo handiagoak izan, edozein kasutan ondo hornituta dauden lokalak dira, izan ere, gaztetxoek diotenez, etxean bezain eroso daude bertan. (...) Handik eta hemendik lortutako, sofa, telebista, bideoa, Play Station, musika aparailua, gustuko apaindurak eta nola ez, hotzgailua izaten dira lonjaren azpiegitura osatzen duten elementuak. Diotenez, tokia lagun talde kideen artean txukundu eta garbitu egin dute, eta, orokorrean mantentzeko txandak daudela esaten dute. Horrekin batera, lonja-kide guztien arteko akordioari esker araudia zehazten dela aitortzen dute nerabeek, eta horren bitartez lonjaren erabilerarako ordutegia, gonbidatu posibleen «zerrenda» eta erabilerarako bestelako jarraibideak finkatzen dituzte».

Nahi dutena egiteko, eta hura nahi duten moduan antolatzeke tokia eskaintzen die lonjak gaztetxoei. Lagunekin egon, musika entzun, jolastu, jende berria ezagutu, egon... Alkohola eta beste droga batzuk lasai kontsumitzeko gunea ere bada lonja. Ikusten denez, bertan egiten dituzten pla-

nak edozein gaztek egiten dituenaren antzekoak dira. Lonja izan edo ez, asteburuetak jarduerak berdintsuak dira. Orduan, zergatik sortzen da lonjaren beharra? Aipatutako ikerlana burutu genuenean bi arrazoi nabarmendu genituen (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003: 67):

«(...) lonja edo txoko izateak bi abantaila nagusi izango lituzke gazteen arabera. Alde batetik, berotasuna eta babesa ziurtatzen die; bestetik tabernak eskaini ohi duen elkartzeko eta kontsumitzeko tokia bezain lasaia jartzten die eskura. Aipatutakoaz gain, lonjak bezalako berezko tokiek intimitatea eta talde barruko harremanak eta dinamikak garatzeko aproposak izango lirateke, bertan taldeko kideen arteko gertutasuna eta komunikazioa bultzatzen dela baitiote. (...) Azkenik, gaztetxoek aitortzen dutenaren arabera, lonja edo txokoa izateak beste abantaila garrantzitsua izango luke: alkohola eta beste drogen kontsumorako toki lasai bat izatearena».

Helduen antzera hainbat gaztek «euren etxeko» lasaitasuna, intimitatea eta erosotasuna nahiago dute. Izan ere, ezin da ahaztu gazte hauen gurasoek ere gero eta gehiago aukeratzen dutela etxea denbora librerako esparru nagusi bezala. Era beran, aipatu behar da, etxeak gero eta prestatuago daude aisialdirako guneez izateko (teknologi berriak edo bestelako aurrerakuntzak direla eta).

Feixak berak ere aitortzen du aisialdiaren pribatutasuna gero eta garrantzi gehiago hartzen ari dela XXI. mendean. Analisi berezia osatzen du berak fenomeno horren inguruan eta gazte buruz hitz egiten duenean «gelaren kultura» aipatzen du. Bere hitzetan (Feixa, 2005b:1):

«Niños y jóvenes han sido vistos a menudo como la vanguardia de la era digital, en su doble vertiente de héroes de la sociedad civil y víctimas de la sociedad del riesgo. Aunque casi siempre este doble proceso de idealización/satanización ha tenido lugar en el espacio público, el espacio privado adquiere cada vez mayor importancia en las culturas adolescentes del siglo XXI. Para bien y para mal las denominadas «culturas de habitación» son hoy uno de los escenarios donde se construye la identidad personal y social de nuestros hijos e hijas, el lugar físico y virtual desde el cual se abren al mundo o se encierran en si mismos».

Fenomeno hau ilustratzeko Feixak muturreko bi adibide jartzen ditu: Hackerren figura eta hikikomorirena. Ezaguna denez hackerrak gazte sor-

tzaileak dira eta informatika bizimodu bihurtzen dute. Etxetik atera gabe orduak eta orduak pasatzen dituzte ordenagailu aurrean eta, mitoak dio beste hacker batzuekin batera, gobernuei eta multinazionaleri eraso informatikoak planifikatzen dituztela. Euren aisialdia (eta askotan lana ere) etxetik kudeatzen dute eta gela euren askatasunerako esparru kontsideratzen dute.

Hikikomoriak Japoniako hirietan bizi dira. Mutil gazteak izaten dira, 20 urte ingurukoak, eta bere gelan espetxeratzea erabakitzen dute. Zergatik? Kasu batzuetan gazte hauek ikasketak bukatu dituzte eta beldurra diote Japoniako lan merkatu lehiakorriari. Presionatuak sentitzen dira eta gainera, komunikazio eskasa dute gainontzeko familiartekoeekin. Gelan sartuta, Internetek aukera eskaintzen die munduarekin harremanetan jarraitzeko eta gehienetan auto-atxiloketak aste edo hilabete batzuk irauten badu ere, kasu batzuetan urteak igaro daitezke. Denbora honetan, aipatu den moduan, teknologi berriak dira, nagusiki euren sostengua. Ziberkulturak irentsi egiten ditu gazte hauek.

Hacker eta hikikomorien fenomenoak arrotzak ager daitezke gure begi bistan. Egia da, egun, oraindik Euskal Herrian komunitatearen sentimendua oso bizirik dagoela eta kaleko kultura txertatua mantentzen da gure errutinetan, egunerokotasunean. Gure aisialdiaren parte dira lagun arteko topaketak eta bestelako ospakizun nahiz ekitaldi kolektiboak, baina ezin dugu ahaztu Feixak jarritako bi adibide hauetan badagoela elementu komun bat gure gazteen artean gero eta garrantzi handiagoa duena, bereziki, euren aisialdia egituratzeko eta kudeatzeko garaian: teknologi berriak.

Teknologi berriek liluratu egin gaituzte eta egungo haurrak jaio bezain pronto aparailu elektronikoz inguratzen ditugu. Teknologi berriak asko erraztu dute gure bizitza. Horretan ez dago dudarik, baina neurri batean morroi bihurtu gara, bereziki hainbat kasutan gure bizitzan (helduen bizitzan behintzat) preziatuena dena eskaintzen diegulako: gure denbora. Errealitate honek era guztietako ondorioak ekarriko ditu etorkizunean, baina jada, gazteen kasuan fenomeno bat bultzatu dute: gela digitalaren sorrera (Feixa 2005b). Ordenagailua tresna ohikoa bihurtu da gure bizitza orokorrean, bai lantokian baina baita ere gure etxean. Lotura hau estuagoa da gazteen kasuan: eskolan erabiltzen dute, etxera iristerakoan ere bai, eta bertan eskuragarri ez badute beste tokitan bilatuko dute –zentro publikoe-

tan edo zibergunetan—. Feixak ohartarazten gaituen moduan, fenomeno hau oso zabalduta badago ere, badira aldagai garrantzitsu batzuk erabilitzailearen profila zehazterakoan eragiten dutenak: besteak beste, adina, sexua, gurasoen ikasketa maila edota klase soziala. Ezberdintasunak ezberdintasun argi dagoena da interneteko gazte (azpi)kultura batetaz mintzatzaren hasi dela. Momentu honetan garrantzitsuena ez da bere hedapena edota intentsitatea gure testuinguruan, teknologiak, komunikazioak eta bereziki komunikazio birtualak egunerokotasunean duen eragina baizik. Feixak horrela deskribatzen du prozesu hau (Feixa, 2005b:3):

«Como consecuencia de la emergencia de la cultura digital que hemos analizado, se ha hecho posible la comunicación interpersonal desde el propio espacio privado: del teléfono familiar controlado por los padres y situado en el comedor o en el pasillo se ha pasado al teléfono celular personalizado que se puede usar desde la habitación; de la comunicación escrita por carta se ha pasado a la comunicación digital SMS, e-mail o chat. Gracias a Internet, los adolescentes han aprendido a acceder a comunidades virtuales que están mucho más allá de su habitación. Y gracias a los videojuegos (consola, Gameboy, Play Station), pueden practicar desde su casa lo que antes tenían que hacer en las públicas salas de juego».

Pribatutasuna edota teknologizazioa dira etorkizunari begira asialdiak ezagutuko dituen joerak. Baina honek zein lotura du hizkuntzarekin eta bereziki, euskararekin? Agian ibilbide luzeegia egin dut honaino iristeko, baina gazteen aisialdiaz ari garela garrantzitsua iruditu zait diagnostiko xume bat osatzea, hortik, hizkuntzaren errealitatera salto egiteko. Azken finean, ezin dugu ahaztu gutxienez hamabost bat urte pasa direla gazteen aisialdiaren eremua euskalduntzeko lehenengo ahalegin formalak egiten hasi zirela² Geroztik egitasmo ugari jarri dira martxan, baina gehienek elementu komun bat izan dute: denbora libreak duen esparru formaletan edo arautuan eragin izan dute. Hau da, kirol arloa eta bestelako eskola orduz

² Gertutik ezagutzen dudana adibide bat jarriko dut: *Kalea Maixu!* egitasmoa 1994ean TTakun Kultur Elkartek martxan jarritako egitasmoa, alegia. Bere helburuak hauek ziren: Lasarte-Orian haurrentzat eta gazteentzat eskaintzen ziren jarduerak euskalduntzea; hezitzaile euskaldunek beraien jardueretan euskararen erabilera sustatzea; herrian eskaintzen ziren eskola orduz kanpoko jardueretan hezitzaile guztiak euskaldunak izatea.

kanpoko ekintzak euskalduntzea izan da helburua. Ez naiz ausartzen, inolaz ere, ahalegin honen inguruko balorazioa egitera, baina momentu honetan nire kezka ez da hainbeste egindakoa, baizik gazteen asialdia hartzen ari den norabidea ikusita (pribatutasuna, teknologizazioa) eginbeharrekoa.

Argi geratu den moduan, gazteak eta aisialdiak bat egiten dute gazte identitateaz ari garenean baina euren denbora librea –nahi duten edo gustuko duten denbora librea– irudikatzerako orduan joera berriak topatzen ditugu, eta horietan oso zaila –ia ezinezkoa– da esku-hartze bat planteatzea.

Dakidanez, orain arte esparru informal horretan planifikatu den esku-hartze nagusia Kuadrillategi egitasmoa izan da. Proiektu ausarta da Kuadrillategirena eta bere momentuan berritzailea ere izan zen. Baina, etorkizunari begira? Herri mailan fruitu interesgarriak eman ditu eta eman ditzakete Kuadrillategi bezalako ekimenek,³ baina ikuspegi orokor batetik, benetan al da eraginkorra? Eta beste zalantza bat: planifikatu al dugu oinarri birtualak dituen errealitate baten inguruan? Gazteez ari naizela sentsazio bat areagotzen zait: gizarte paraleloarena. Ziurrenik gaur egun aurrez aurrekoa edo bertakoa den mundua nagusi izaten jarraitzen du, baina honek ezin du mundu birtualaren errealitatea ukatu. Zer egiten ari da hizkuntza planifikazioa horren gainean? Eta zer egin behar du?

3. Gazte izan eta euskalduna

Gazteak kezka eta ikergai nagusi bihurtu dira azken urteotan euskal soziolinguistikaren arloan. Gauza bera gertatu omen da beste leku batzuetan: adibidez Katalunian. Hemen ere, oraindik hizkuntza normalizatu gabe dago. Joan Pujolarrek NOVES S.L. aldizkariaren zenbaki berezi bat zuzendu zuen 2008an gazteak, hizkuntzak eta identitateak gai nagusi zituela (Pujolar, 2008). Aipatu aldizkariaren aurkezpen kapituluan («Els joves, les llengües i les identitats») gazteek hizkuntza plangintzaren ikuspegitik sortzen duten

³ *Kuadrillategi* egitasmoak lagunartean edo koadriletan euskararen erabilera sustatzea du helburu. Horretarako esku-hartzea eta ikerketa garatu dituzte egitasmoa martxan jarri duten udalerriek. Egitasmo honi loturiko lehenbiziko esperientziak 2000 urtearen inguruan gauzatu ziren.

ikusmira (eta hainbatetan egonezina) izan zuen mintzagai Pujolarrek. Bere ustez bi dira fenomeno horren arrazoi nagusiak (Pujolar, 2008:1). Alde batetik, gazteak, hau da hiztunen belaunaldi berriak, etorkizunerako haziak kontsideratzen dira normalean eta bere partehartzea ezinbestekoa da hizkuntza gutxituen berreskurapen prozesuetan. Beste aldetik, dio Pujolarrek, gazteak beste populazio talde batzuk baino eskuragarriagoak dira ikerlarientzat. Normalean beti daude prest galdetegi bat erantzuteko edota elkarrizketatuak izateko. Zentzu honetan, Pujolarren arabera, kontuz ibili behar da, izan ere gaztei buruzko ikerlanen inflazioa gerta baitaiteke, beste populazio talde batzuen jokaerak aztertu gabe jarraitzen duten bitartean. Aipatutakoaz gain, nire ustez Pujolarrek egindako ohar honek bidea irekitzen duela hausnartzeko, orokorrean, aukeratzen ditugun ikerlariak buruz eta, sakonean, ikerlari horiekiko dugun harremanei buruz. Gazteak, aurretik esana dago, kezka gaiti bilakatu ditugu hizkuntzaren inguruan aritzen garen ikerlariok. Kezkatzen gaitu euren euskara mailak, euren euskara erabilerak eta hizkuntzarekiko adierazten duten atxikimenduak. Ez naiz sartuko eztabaidatzera arrazoiak dauden ala ez gazteak kezka gaiti izaten jarraitzeko, baina horren inguruan hainbat ideia nabarmendu nahiko nituzke.

Alde batetik, uste dut kontuan hartu beharko genukela gaztei loturiko arazoak edo kezka gizarte oso baten sintomak edo metaforak direla. Euren jarrera edota jokaerak neurri handi batean orainaldiaren isla dira, egun gure gizarteak biltzen dituen itxaropen eta beldurren isla, alegia. Gainera, transmisioaren bitartez, gazteek aurreko belaunaldietan konpondu ez diren arazoak jasotzen dituzte, eta euren jokabideetan eta jarreretan sedimentu hori topatuko dugu. Beraz, gazteek sortarazten dizkiguten galderak modu orokorrago batean planteatu beharko genituzkeela uste dut.

Bestalde, askotan pentsatzen dut gutxitan konturatzen garela benetan gizarte adultozentriko⁴ batean bizi garela. Gizarte horretan helduek pentsa-

⁴ Kontzeptu hau *-adultozentrikoarena* alegia– Joán Pallarés eta Carles Feixak erabiltzen duten gisara erabili nahi izan dut nik ere. Egile hauek azaldutakoaren harira, eredu *adultozentrikoa* helduen ikuspuntu, nahi edo behar ezberdinetatik diseinatutakoa litzateke. Erdigunean gaztetxo nahiak edo balioak baino, gurasoenak edo nagusiek dituztenak kokatzen dira. Kontzeptu honen inguruan azalpen gehiago behar izanez gero, *ikus*: Feixa, 2000.

tzen, asmatzen, esaten eta agintzen dutenak du bakarrik balioa, prestigioa eta, batez ere, legitimitatea. Mundua helduen ikuspegiaren arabera dago antolatuta eta gutxitan aitortzen diegu gazteei sormenerako duten gaitasuna. Egun –gazteez inguratuta gaudenok– sarritan kexatzen gara euren ekimen faltaz, hori akats genetikoren bat izango balitz bezala. Begira eta aztertu dezagun egungo gizartea (helduen beharretara antolatutako gizartea, alegia) eta gero agian elementu gehiago izango ditugu gazteen errealtatearen analisisa egin ahal izateko. Hizkuntzari dagokionez, ziur nago gazteek asko dutela erakusteko, baina susmoa dut ikerlariok eta bestelako eragileek oraindik ez dugula asmatu ez begiradarekin, ez planteatu beharrekogalderekin, ez ikerketa teknikekin...

Aipatutako ideiak hobeto azaltzeko bi aspektu nabarmenduko ditut: lehenengoz identitatearen gaia berreskuratuko dut; ondoren, hizkuntza praktikei buruz hitz egingo dut. Biak erabilerarekin lotzen saiatuko naiz, gai hori adituen foroetan puri-purian dagoen gaia den neurrian.

3.1. Gure gazteek ez dute euskaraz egiten beraz...

Zergatik gazteek ez dute euskaraz egiten? Hori da behin eta berriz errepikatzen dugun galdera. Dakidanez horren inguruan jardunaldi ugari antolatu arren, erantzuna ez dugu topatu. Zergatik ez? Izan daiteke errealtatean gertatzen ari dena ulertzeko oraindik ez dugulako teoria edota tresna egokirik. Beharbada, saiakera horretan jarraitu behar dugu, baina gerta daiteke ere galdera bera gaizki formulatuta egotea.

Lehenengo aukera baztertu gabe, bigarrenaren alde egin nahi dut momentu honetan.

Euskararen ezagutza nahiko bermatua dagoelakoan gaude. Ez guztiz zabaldua eta finkatuta, noski, baina bai familia bai hezkuntza sistemari esker, egun haur, nerabe eta gazte asko euskaldunak dira, hau da, euskara dute, euskara ikasi dute. Orduan, zergatik ez dute hitz egiten euskaraz? Jada hainbat ikerketa saiatuak dira gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak detektatzen eta, nire ustez, arlo honetan egindako guztiak aurre-rapausu bat suposatzen du. Baina, batzuetan pentsatzen dut kezka honen

abiapuntuan badagoela zerbait gaizki planteatzen duguna, hasi hasieran akats bat dagoelako. Eta «akats» hori lotua dago hizkuntza definitzeko erabiltzen dugun paradigma tradizionalarekin. Horrela, puntu honetan bat egiten dut Joan Pujolarrek katalanaren inguruan egiten duen interpretazioarekin (Pujolar, 2008:2). Laburbilduz, esan dezakegu katalanaren inguruan (gure kasuan euskararenean) bere diskurtsoa definitzerakoan hiru premisa erabili dituela:

- a) Hizkuntza talde identitate baten adierazpena da, horrela, edozein pertsonak hizkuntza bereganatzerakoan (gizarteratze prozesuaren bidez) identitate hori ere jasoko luke.
- b) Hizkuntza izate independente bat da, hiztunaz aparte irudikatu eta definitu daitekeena.
- c) Bakoitzaren hizkuntza edo berezko hizkuntza hitz egitea, identitatearen adierazpen naturala izango litzateke. Beste hizkuntza bat erabiltzea, edota hizkuntzaren erabileran interferentziak (maileguak eta abar) txertatzea, anormaltasun baten seinalea kontsideratzen da.

Hau da orain arte nagusitu den paradigma eta horren arabera baloratu dugu gure hizkuntz egoera. Baina azalpen honetan automatikoa dena (hizkuntzaren jabekuntza eta gizarteratze prozesua), independentea dena (hizkuntza) eta naturala dena (bakoitzaren hizkuntza hitz egitea, hau da hizkuntza erabiltzea) ez da errealitatean gauzatzen.

Euskara hizkuntza minorizatu bat da eta denbora luzea darama desagertzeko zorian. Etorkizuna ez du bermatua eta horrek presio handia suposatzen du. Eta presio hori ona izan daiteke, baina ez beti. Presiopean sormena garatu daiteke, dudarik gabe, baina beste batzuetan antsietateak errealitatea behar den lasaitasunarekin aztertzen ez digu utziko.

1970. urtean jaio nintzen. 1985. urtean nerabea nintzen. 2010. urtean gaude gaur. Nire 40 urteotan izugarritzko hizkuntz egoeraren aldaketa ikusi eta bizi izan dut. Euskara ikasteko aukeren hedapena izan da, nire ustez, urte hauetako lorpen handiena. Haurrek eta gazteek aukera asko izan dituzte (eta dituzte) euskara ikasteko, eta hizkuntza honetan trebatzeko. Nire belaunaldikoek izan ez genituenak (berandu arte). Salbuespenak sal-

buespen, gure gazteek euskararen demokratizazioa (euskara ikasteko eskubidea) ezagutu dute. Nire ustez momentu horretan gaude oraindik. Gazteak, euren familiak eta gizartea bera hori asimilatzen ari direla uste dut. Aldaketak prozesatzen ari dira bai maila kolektiboan, bai maila indibiduallean. Euskara aniztasunez bustitzen ari da, baina susmoa dut hizkuntzaren inguruko paradigma tradizionalak indarrean dirauela, aldaketa guztiak prozesatu ezinik edo. Gazteek aldiz, krisian jartzen dute paradigma hori, deseraikitze prozesu baten beharraz ohartarazten gaituzte: zein lotura du paradigma horrek euren egunerokotasunarekin, euren gertuko errealitatearekin? Euskararekin batera euskal kulturari loturiko hainbat erreferente ezagutzen dituzte, baina nola txertatu horiek euren familiak (horietako asko erdaldunak) eskaintzen dizkien erreferenteekin? Eta gazte kulturaren erreferenteekin?

Galdera zerrenda oso luzea izan daiteke, baina agian mahai gainean utzitakoak nahikoak izan daitezke konturatzeko gazteek egin beharreko ahalegin izugarriak. Egia esan, errealitate konplexu honen aurrean ez zait oso egokia iruditzen gazteek euskaraz zergatik ez duten egiten galdetzea. Pujolarrek esaten duen moduan nahasmen horren aurrean erantzun beharreko galdera-sorta beste bat da (Pujolar, 2008:5):

«Així, la pregunta important que falta respondre (i que sovint ni es formula) és la següent: per què les persones opten per fer ús d'uns discursos/recursos i no d'uns altres? Què els porta a optar per construir o combinar determinats models identitaris i no altres?».

Zer eskaintzen die euskarak gure gazteei? Zer eskaintzen die gazte eta euskaldunak (edo gazte euskaldunak) izateko (edo sentitu ahal izateko)? Ildo honi eustekotan, nire ustez oraindik asko geratzen zaigu egiteko. Pertsonalki erabilerak kezkatzen nau, nola ez, baina baita sormenak ere. Gazteei begira sormen esparru guztiak iruditzen zaizkit interesgarriak, euren interesekin bat egiten dutenak. Nabarmenenak: musika bereziki, baina beste batzuk ere, adibidez, antzerkia, literatura, bertsolaritza.

Euskaldun bezala definitu edo ez, beste ezer baino lehenago gazteak dira. Hizkuntz identitatea baino lehenago hiztunak eta bere ezaugarriak nabarmenduko nituzke nik. Baina guzti honetaz oso gutxi dakigula iruditzen zait.

3.2. Eta gazteek ez badute euskara egiten, zer egiten dute euskararekin?

Azaldu dudan moduan nire kezka gazteak dira, hiztunak. Bere euskara maila edota euskararekin duten harremana edozein izanda ere, interesatzen zaizkit. Jada, harrigarria iruditzen zait –arestian aipatu dudan moduan– euskarak azken hamarkadatan egin duen ibilbidea belaunaldi berriei begira. Haurrak eta gazteak modu masiboan –eta ez tantaka nire garaian bezala– harremanetan egon dira (eta daude) euskararekin. Ziur nago, neurri batean edo bestean esperientzia horrek markatu duela euren bizitza. Niri kontrakoa gertatu zitzaidan, euskara ez izateak nire bizitzako norabidea baldintzatu zuen. Baina, harreman hori gertatu bada, zein fruitu eman ditu? Are gehiago, egia bada gazteek, edo hobeto esanda gazte gehienek, ez dutela euskaraz egiten, orduan zer egiten dute ikasitako euskararekin? Ez dakigu.

Estatistikek esaten digute zenbat gaztek ikasi duten euskara (teorikoki), Kale Neurketek esaten digute zenbatek erabiltzen duten gure herriko kaleetan eta bestelako ikerketek azaltzen digute zein nolako motibazioa adierazten duten euskararekiko gure neska-mutilek. Halere, inpresioa dut ez dakigula benetan zer egiten duten hizkuntzarekin.

Gure ikuspegia, beste gauza batzuen artean, ezagutza-erabilera-motibazioa eskemarengatik oso baldintzatuta dagoela uste dut, eta sekuentzia horrek irudi oso estatikoa ematen digula pentsatzen dut. Errealitateak dikotomiak zalantzan jartzen ditu: ezagutu edo ez ezagutu, erabili edo ez erabili; motibazioa izan edo ez izan. Errealitatean dibertsitatea nagusi dela iruditzen zait, eta belaunaldi euskaradun berriek bere baitan biltzen duten aniztasunaz jabetzeko beste eredu bat aplikatu behar dugulakoan nago.

Ezagutzan erreparatzea baino gaitasunean jarriko nuke nik arreta. Azken finean, zer da ezagutza? Ezagutza gaitasun batzuk bereganatzean lortzen dugu; ezagutza bide bat da, prozesu bat eta ibilbide horretan gaitasunen lanketa da giltzarria. Gaitasunaz hitz egiterakoan pertsonarengan zentratzen gara eta ohartzen gara ezagupena oso erlatiboa izan daitekeela: ahozkotakuna, idazketa eta irakurketa baino zerbait gehiago da. Nik esango nuke

gure gazte askok, gehienak badute gaitasunen bat, edo bat baino gehiago, euskarari eskaintzeko eta hortik aurrera lantzen joateko. Ez dakit lekurik eskaini diegun hori adierazteko.

Erabileraz baino, praktiketaz hitz egingo nuke nik. Praktikaren kontzeptuak errealitatera eramaten gaitu: zer egiten dute gazteek euskaraz edota euskararekin? Kezkak ez luke soilik zenbat hitz egiten duten jakitea izan behar, baizik euskara nola erabiltzen duten argitzea, Zertarako? Zer egiten dute euskararekin? Noiz? Norekin? Euskara erabiltzen dutenek ez dute beti erabiltzen, eta erabiltzen ez dutenek batzuetan erabiltzen dute, eta tartean hiztun multzo handi bat dugu. Hau jakinda, helburua litzateke aztertzea benetan zein den erabilera, zertan gauzatzen den. Ziur nago ikuspegi hone-tatik sorpresa asko jasoko genituzkeela: Jorgek eta Israelek, bi gazte ijitok, flamenkoa egiten dute euskaraz; beste batzuk sms-ak bidaltzen dituzte euskaraz; beste batzuk bertso-rap entzuten dute, eta abar.

Azkenik, motibazioaz baino, emozioaz hitz egingo nuke, tarteka bederen. Zergatik? Motibazioaren kontzeptua nahiko mugatua geratu zaigula uste dudalako. Gainera, motibazioaz hitz egiten dugunean, sakonean emozioaz ari garela pentsatzen dut. Agian ez dirudi oso kontzeptu akademikoa, baina azken boladan lan asko burutzen ari dira horren inguruan eta ikuspuntu horretatik dena egiteke dagoela uste dut, maila orokorrean eta bereziki gazteei dagokionez. Erronka horri ez badiogu heltzen, oso lan ildo aberatsa bazterten ariko garela iruditzen zait. Hizkuntza emozioz beteta dago eta emozio horiek dira neurri handi batean praktikak bultzatzen dituztenak, aldaketak eragiten dituztenak, proiektuak eta prozesuak mar-txan jartzen dituztenak. Gaztaroa emozioz beteriko garaia da, baina zein emozio lotzen dituzte gure gazteek hizkuntzarekin? Zein emozio sortaraz-ten die euskarak? Edo, galdera hori baino lehenago, emozionatzen dira euskararekin?

Ikusten denez, azken atal hau galderaz beterik dago. Jada lan asko egin du orain arte euskal soziolinguistikak, baina denbora aurrera joan da eta kontzientzia hartu behar dugu gertatutako aldaketekin. Gutako asko gaz-teak ginen euskararen berreskurapena hasi zenean (Frankismo ondorengo berreskurapenaz ari naiz, noski) eta egun ez gara hain gazteak. Edonola bi-

dean, zorionez, hainbat belaunaldi euskaldundu dira eta euskalduntzen ari dira. Kopuruek eta indizeek diote: aldaketa izugarria izan da, baina prozesuak eragindako ondorioak ez ditugu oraindik ezagutzen. Ezagupenaren belaunaldiak dira egungo gazteek osatzen dituztenak, baina uste dut horretaz gain, funtsean gutxi dakigula eurei buruz. Bitartean gizartean hainbat aldaketa gauzatu dira, horietako batzuk testu honetan landu dugun gaiarekin zerikusi zuzena dutenak: esate baterako, teknologi berrien hedapena, aisialdiaren areagotzea eta gazte izaeraren birdefinizioa. Bi prozesuen uztartaketa egitea falta zaigula uste dut, eta hori lortu ezean nekez hitz egin ahal izango dugu gure gazte euskaldunei buruz.

Eta zerumugan, euskarak duen erronka garrantzitsuena: dibertsitatearen edo aniztasunaren kudeaketa. Baina hori beste egun baterako...

Bibliografia

BERRIO-OTXOA, Kotxesi; MARTÍNEZ, Zesar; HERNÁNDEZ, Jone M., 2000, *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

———, 2003, *Gaztetxoak eta Aisialdia. Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*. Soziologiako Euskal Koadernoak 13. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

DEL VALLE, Teresa, 1988, *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*. Barcelona: Anthropos.

EMAKUNDE, 2009, *Adolescentes en Euskadi. Una aproximación desde el empoderamiento*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.

FEIXA, Carles, 2000, «Espacios e itinerarios para el ocio juvenil nocturno». *Estudios de Juventud*, 50 (2000) 23-42.

———, 2005a, «La habitación de los adolescentes», *Papeles del CEIC*, 16 (2005). Interneten (2010-11-27): http://www.ceic.ehu.es/p285-content/eu/contenidos/noticia/ceic_noticias_05/es_noticia/adjuntos/16_05.pdf

FEIXA, Carles, 2005b, «Los hijos en casa: ¿hackers o hikikomoris?», *Revista Comunicación y Pedagogía*, 208 (2005). Internen (2010-11-27): <http://www.xtec.cat/~abernat/articles/feixa.pdf>

———, 2009, «Generación Replicante». *El País*. 18/9/2009

HERNÁNDEZ, Jone M., 2005, *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Soziologiazko Euskal Koadernoak 16. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki, 1999, *Etorkizuna Aurreikusten 99. Gaztetxoak eta euskara*. Vitoria-Gasteiz: Iñaki Martínez de Luna.

MORGAN, Marcyliena, 2004, «Speech Community» in *A Companion to Linguistic Anthropology*. London: Blackwell, 3-22.

PUJOLAR, Joan (dir.) 2008, «Els joves, les llengües i les identitats». *NOVES SL* (2008). Interneten (2010-11-27): <http://www6.gencat.cat/llengcat/noves/hemeroteca/hivern08.htm>

URLA, Jacqueline, 2001, «El nuevo «Ritmo» del Euskara: Identidad y mestizaje en la obra de Negu Gorriak». Interneten (2010-11-27): <http://www.negugorriak.net/pdfs/globalnoise.pdf>